

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **24/2020 Mozioa, ekainaren 4koa, teknologia berrien arloan Arabako landa ingurunean dagoen eskusio sozial eta teknologikoa desagerrarazteko**

Arabako Batzar Nagusi hauetako Ekonomia Garapenaren, Berrikuntzaren eta Demografia Erronkaren II. Batzordeak, 2020ko ekainaren 4an egindako bilkuran, honako mozioa onetsi zuen:

24/2020 Mozioa, ekainaren 4koa, teknologia berrien arloan Arabako landa ingurunean dagoen eskusio sozial eta teknologikoa desagerrarazteko.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, Ekonomia Garapena, Berrikuntza eta Demografia Erronkaren Sailaren bitartez, koordinatu eta kudeatu dezala Arabako Lurralde Historikoko udalak espazio publikoetan (parkeak, plazak, eraikin ofizialak, liburutegiak, osasun-zentroak eta abar) wifi konektibitateko doako sarbidea finantzatzen duten Europako programetara aurkeztea.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezen, lurraldeko administrazio-batzarrekin batera, aztertu dezatela legegintzaldi honetan Arabako Lurralde Historikoko herriuneetan gutxienez wifi-puntu publiko, doako eta konektibitate handiko bat ezartzeko aukera.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eta gainerako instituzio publikoei eskatzen diete bermatu dezatela administrazio- eta agiriak aurkezteko izapide guztiak era presentzian egiten jarraitu ahal izatea, ziurtatuz betiere, administrazio publikoarekin harreman elektronikoak izateko eskubidea.

4. Erabaki honen berri emango zaie Arabako Lurralde Historikoko udal eta kontzejuei.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 4a

*Presidentea*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**